

Kosmodisea 2008-2009 | Fono Planeta | Zikloak



Elena Aizpurua (Tolosaldea BHI)

Elena Aizpurua (Tolosaldea BHI) arduradun duen taldea izan da puntuazio onena jaso duena Zikloen kategorian. Irakasleak dioenez, bere zentroan Kosmodisean parte hartu duten guztiek lehiaketari “*gogo handiz*” ekin diote.

Aizpuruak dio ez dutela arazo handiegirik izan, baina “*agian denbora gehiegi pasa dutela gidoia pentsatzen eta prestatzen*”.

- Zure ustez, orain arte zein izan da Kosmodiseako edizio honetako gauza interesgarriena?
- Taldeko lana sustatzea, ikasleek beren ideiak aurkeztea eta bakoitzaren proposamenak errespetatzen ikastea, adin horietarako oso aberasgarria da.
- Eta zein izan da parte hartzerakoan izan duzuen alde zailena?
- Agian denbora gutxi izan dugu proiektua ondo aurkezteko.